

HITZ ELKARTUEN LEHEN OSAGAIAREN BUKAERA *-a-* DELARIK *HIZKUNTZ/A* SALBUESPENAREKIN BATERA *HEZKUNTZ/A ONARTZEAREN* ALDEKO EMENDAKINA

Fito Rodríguez Bornaetxea

PROPOSAMENAREN EDUKINA

‘Hizkuntz’ hitzaren salbuespen ezaguna onartzeaz gain ‘Hezkuntz’ deritzaren kasuan gauza bera onartu behar izatea. Beraz, kasu guztiotan trataera bateratua eduki dezaten.

1. Zer esan duen Euskaltzaindiak puntu honetaz. Noiz eta zein mailatan.

Euskaltzaindiaren Euskara Batuko batzordeak bere 1992ko separatan hitz elkartuak osatzeko proposatzen dituen irizpide nagusien ondoan (28/29. orr.) hobestutako salbuespenen berri ematen digu (30. orr.). Aipatutakoaren arabera, j akina denez, lehen osagaia eliza, **hizkuntza**, kultura, natura, edo literatura hitzek, elkartzekotan, azken a gal dezakete salbuespen gisa. Horrela Hizkuntz Politika onartzen den bitartean **hezkuntz alorra** bezalakorik erabiltzea erabat *debekatzen* da.

2. Proposamen edo erabaki horri egin zaizkion oharra

Hizkuntza, jakina hitz oso zaharra dugu. Elkartzekotan, beraz, askotan azken a galtzearen tradizioa eduki duela ez dago dudarik. Hezkuntza, berriz goian aipatutako beste hitz horrekiko homofonia handia duena oso hitz berria dugu. Antzinako hez(i)keta edota erdarazko ‘crianza’ edo ‘nourriture’ haiei ordezkatzeko sortua.

Hezkuntza, bada, hez(i)keta zein hizkuntzaren ondoan behintzat, hitz berri samarra denez ezin da esan a delako hura galtzeko tradizioaren argudioa erabilzterik dagoenik. Homofonia zein Gramatikaren logika erabiliz, ostera, adierazten ari garen salbuespenak ez du logika izpirik. Areago, egunerokotasunak bultzaturik eta Irakaskuntzaren erreforma medio asko dira paper ofizialetan agertu ohi diren **hezkuntz egitasmoa**, **hezkuntz trataera** eta indarrean dauden gomendioen arabera behinik behin, guztiz *debekaturik* dauden abarrek hitz elkarketak. Ildo

beretik doa, honez gero, gure Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Zientzien Fakultatea izendapen ofiziala erabiltzeko ere egun omen dugun ohitura.

3. Txostengileak egiten duen azken proposamena

Salbuespenak albuespen, usadioa ari da sortzen eta lehenbaitlehen, ahal dela Gramatikaren logika medio, hizkuntzaren zein hezkuntzaren hitz elkartuen traterata bateratua eskatzeari zilegizkoa deritzogu. Beraz, **Hizkuntz gaitasuna** baldin bada hobetsia, era berean **Hezkuntz gaitasuna** onartua izan bedi. Denon erraztasunerako eta, finean, euskararen onerako ere izango da eta.

Azkenik eta gero, ene iritzia azaltzekotan, honako hau gehituko nuke azaldutakoa laburtu nahian:

‘Hizkuntza’ eta ‘Hezkuntza’ hitzak bai fonetikaz bai eta gramatikaz ere antzerako traterata izatea. Hau da, albuespena horietariko bat baldin bada biak izan daitezten eta alderantziz izatekotan biontzat ere izan dadila.